



Homeopatia: Ohiko medikuntzaren ordezkoko?

Gauza jakina da gero eta jende gehiagok jotzen duela homeopatiara, nahiz eta oraindik ere **berme** zientifikorik ez duen. Ikus dezagun zer esaten den, zein diren iriztiak, aldekoak eta aurkakoak, zein argudioak, printzipioak eta benetan **eraginkorra** den ala ez gaixo dagoena sendatzeko garaian.



Homeopatiaren historia laburra

Homeopatia, Samuel Hahnemannen eskutik etorri zaigula esan daiteke. 1755ean jaio zen mediku hau, garai hartan hain erabiliak ziren purgak, **odolusteak** eta merkurio, **sufre**, kloro eta beste **prestakin** batzuetan oinarritutako **jardunak** alde batera utzi eta beste bide terapeutiko batzuk bilatzen saiatu zen. Baina, atzerago joz gero, homeopatiaren **aitzindari** nagusia Hipokrates izan zela esan daiteke, medikuntzaren aitatzat hartzen duguna.

Hipokrates, homeopatiaren oinarrietako bat den *antzekotasunaren legea* (ikus aurrerago dagoen azalpena) eman zuen aditzera. Gerora, Hahnemann 1843. urtean hil ondoren eta nahiz eta jarraitzaile ugari eta lan teoriko idatzia utzi zituen, homeopatiak ez zuen inolako **garapenik** izan hurrengo ehun urteetan. 70eko hamarkada arte ez zen diziplina honekiko interes handia agertu.

Homeopatia, beste aukera bat

Homeopatia, jaio zenetik, zenbait gaixorentzat beste aukera bat den bezala, beste batzuentzat **iruzurra** da. Lortu dituen emaitza positiboak alde batera utzi gabe, ikerketa zientifikoa seriorik ez dagoenez, zalantza ugari sortu baititu bere inguruan.

Alternatiba hau erabiltzen dutenak aspertu egin dira medikuntza ofizialaren eskaintzaz: gehiegizko medikazioa, tratamendu erasokorrak... hau da, botika gehiegi hartzearen ondorio txarrak.

Arrazoi hauek direla medio, mediku askok ere jo du homeopatiara, gaixoaren azterketa oinarri duen alternatibara, hain zuzen ere. Mundu osoko milioika pertsonak **hobetsi** du homeopatia eta horregatik, Frantzian, esaterako, Gizarte Segurantzak botiken kostuaren erdia itzultzen dio gaixoari.

Printzipio nagusiak

Homeopatia hitzak jatorri grekoa du, *omoios* eta *pathos* hitzetatik dator, hau da, *antzekoa* eta *gaixotasuna*. Medikuntza ofizialari, berriz, *alopatikoa* ere deitzen zaio. Azken hitz honen jatorria ere grekoa da, *alo* eta *pathos* hitzetatik baitator, hau da, *kontrakoa* eta *gaixotasuna*. Homeopatiak gorputzaren sendatzea **suspertzea** bilatzen du, baina bere medio propioen bitartez. Ez du bigarren mailako efekturik **eragiteko** gaitasunik eta oinarritzko hiru printzipiotan oinarritzen da: antzekotasunaren legea, medikuntza bakarraren legea eta **gutxieneko** dosien legea.

Antzekotasunaren legea: Homeopatiako produktu batek pertsona **osasuntsu** batengan tratatzen ari den gaixotasunak eragiten dituen sintoma berberak eragin behar ditu. Homeopata batentzat tipulak **doministikuak** eta malko-jarioa eteteko balio du eta kafeinak lorik eza **ekiditeko**.





Berridatz itzazu hurrengo esaldiak, segidan eskaintzen zaizkizun egiturak erabiliz.

Sendagai bakarraren legea: Homeopata klasikoez sendagai bakarra erabili ohi dute, gutxitan bat baino gehiago, nahiz eta pres-takin bakarra produktu konposatua izan dai-tekeen.

Gutxieneko dosiaren legea: **Osagai** akti-boa hainbat bider diluitzen da oso kontzen-trazio txiki baina eraginkorretara iritsi arte. Egindako disoluzio-kopuruak hamartarretan edo ehundar hanemanianotan (DH) zehaz-ten du disoluzioaren potentzia. Botika homeopatikokoak landare eta animalietatik lortzen dira, eta askotan mineralak erabiliz-ten dira.

Zein gaixotasun dira homeopatiak tratatzeko modukoak?

Homeopaten arabera, hauek dira homeopa-tiaren bidez ondoen sendatzen diren gai-tzak:

- Gaixotasun bakterio infekziosoak eta biri-koak (arnasbide altuetakoak, bereziki: faringitisa, errenitisa, sinusitisa, trakeiti-sa...), hala nola, mikotikoak.
- Antzutasuna, haurdunaldi anitza izateko aukerarik gabe.
- Buruko minak, migrainak.
- Erreumarekin lotutako gaixotasunak.
- Arazo ginekologikoak: dismenorrea, **hilekoaren** aurre-ko sindromea, menopausia.
- Larruzalaren gaixotasunak: ekzemak, urtikariak, pso-riasia, aknea, herpes soila.
- Antsietatea, larritasuna, estresa, depresioa, lorik eza.
- Gaixotasun alergikoak eta psikosomatikoak.

Ezagunak dira, halere, homeopatiaren mugak: adibidez, gaixotasun genetikoak, eskasia-eritasunak, tumoreak eta prozesu kirurgikoak ez dira tratamendu homeopatikoez sendatzeko modukoak. ■

- 1.- Gauza jakina da gero eta jende gehiagok jotzen duela homeopatiara, nahiz eta oraindik ere berme zientifikorik ez duen.
.....
..... ere
- 2.- Baina, atzerago joz gero, homeopatiaren aitzindari nagusia Hipokrates izan zela esan daiteke.
..... badugu
- 3.- Medikuek askok ere jo du homeopatiara, gaixoaren azterketa oinarri duen alternatibara, hain zuzen ere.
..... , hots,
- 4.- Homeopatiak gorputzaren sendatzea suspertzea bilatzen du.
..... dabil
- 5.- Homeopaten arabera, hauek dira homeopatiaren bidez ondoen sendatzen diren gaitzak
..... diotenez,

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera.

AITZINDARI.- Precursor/a. Précurseur/ère.
ANTZEKOTASUN.- Parecido, semejanza. Similitude.
BERME.- Garantía. Garantie.
DOMINISTIKU.- Estornudo. Éternuement.
ERAGIN.- Impulsar. Impulser.
ERAGINKOR.- Eficaz. Efficace.
EKIDIN.- Evitar. Éviter.
GARAPEN.- Desarrollo. Développement.
GUTXIENKO.- Mínimo/a. Minimum.
HILEKO.- Menstruación. Mestruation.
HOBETSI.- Preferir. Préférer.
IRUZUR.- Engaño, fraude. Escroquerie.
JARDUN.- Práctica. Pratique.
ODOLUSTE.- Desangramiento. Hémorragie.
OSAGAI.- Componente. Composant/e.
OSASUNTSU.- Sano/a. Sain/e.
PRESTAKIN.- Preparado. Préparation.
SUFRE.- Azufre. Soufre.
SUSPERTU.- Recuperar (se). Récupérer.

